



IKASTETXE PUBLIKOA// ESKOLA JANTOKIKO ARAUDIA

HAUR- ETA LEHEN-HEZKUNTZAKO ZELANDI IKASTETXEA



Zelandiko Gurasoen Elkarte
23/05/2018



HAUR- ETA LEHEN-HEZKUNTZAKO ZELANDI IKASTETXE PUBLIKOA// ESKOLA JANTOKIKO ARAUDIA

Aurkibidea

AURKEZPENA

HELBURUAK

1. Osasunerako heztea
2. Elkarbizitzarako heztea
3. Aisiarako heztea

JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

JANTOKIKO ELKARBIZITZA-ARAUAK

HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

MONITOREEN EGINKIZUNAK

FAMILIENTZAKO ARAUAK

1. ERANSKINA
2. ERANSKINA
3. ERANSKINA
4. ERANSKINA
5. ERANSKINA



AURKEZPENA

Ikastetxeko jantokia zentroak eskaintzen duen beste zerbitzu bat da, eta bertako ikasle, irakasle eta langileei zuzenduta dago. Ikasturteko klase-egunetan bazkariak ematea du helburu.

Indarreko araudiaren arabera (**246/1991 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 24KOA, DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZA MAILETAN NAFARROAKO IKASTETXE PUBLIKO EZ-UNIBERTSITARIOETAKO ESKOLA-JANTOKIAK ARAUTZEN DITUENA**”), gure jantokia ikastetxeko ohiko jantokia da, Gurasoen Elkarteak kudeatzen du eta kontratatutako zerbitzua du.

Ikastetxeko jantoki honen araudi partikularrak Jantokiko Batzordeak ezarri du, eta araudi honetan dago dokumentaturik. Araudia erabiltzaileei emango zaie euren eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin dezaten.

Honako hauek osatzen dute Jantoki Batzordea:

- Ikastetxeko zuzendaria.
- Gurasoen elkarteko lehendakaria.
- Gurasoen elkarteko bi ordezkari, jantokiko egunerokoa kudeatuko dutenak. Pertsona horiek GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIA taldekide iraunkorrak izango dira.

Jantokiko batzordea gutxienez bi aldiz bilduko da ikasturte osoan. Jantokiko batzordekideek bertan parte hartu behako dute ezinbestean. Era berean, guztiz gomendagarria izango da azpikontratutako enpresako arduradun bat eta jantokiko arduraduna bertan egotea.

Batzordea ohiz kanpo elkartuko da sortzen diren gorabeheren kudeaketak hala eskatzen duenean. Horretarako, ezinbestekoa izango da batzordekideetako batek eskaera egitea, eta aukera egongo da kanpoko jendea bilerara gonbidatzeko, betiere aztertu behar den gaiaren arabera.

Araudi hau Gurasoen elkarteko Batzordeak onetsi zuen 2018ko abenduaren 9an, eta Jantoki Batzordeari aurkeztu zitzaion 2018ko abenduaren 14an. Eskola Kontseiluak, berriz, 2018ko azaroan jaso zuen.



HELBURUAK

Ikastetxeko jantokia hezkuntzako zerbitzu osagarria da, eta honako helburu hauek ditu:

2 Osasunerako heztea

- 3.3. Higieneko eta elikadura oneko ohiturak sustatu eta garatzea, osasunerako hezkuntza egokiaren oinarria diren aldetik.
- 3.4. Klasean ikasitako higiene- eta osasun-arauak praktikan jartzea.
- 3.5. Gustu eta mota askotariko elikagaiak jaten ohitzeko lehendabiziko pausoak ematea.
- 3.6. Mahaian jarrera egokiak izatea.
- 3.7. Jateko tresnak modu egokian erabiltzen ikastea.
- 3.8. Mahaian eduki beharreko hezkuntza oneko arauak ikastea eta praktikan jartzea.
- 3.9. Familiari aditzera ematea oso komenigarria dela jantokiko arduradunekin lankidetzan aritzea, ikasleen osasuna nahiz hezkuntza nutrizionala lantzeari begira.
- 3.10. Familiak kontzientzatzeta oso garrantzitsua dela ikastetxeko jantokian ikasitako jokabide-ereduak etxean ere praktikan jartzea.

4. Elkarbizitzarako heztea

- 4.1. Elkarbizitza- eta lankidetzak-ohiturak barneratzea eta praktikan jartzea lan komunitetan.
- 4.2. Lankidetzarako izaera piztea ikasleengan. Horretarako, jantokiko lanetan inplikatuko ditugu, betiere euren gaitasunen arabera: zerbitzua jarri eta kentzea, adin txikiagoa duten ikasleei laguntzea...
- 4.3. Adiskidetasuna eta errespetu- nahiz tolerantzia-jarrerak sustatzea eskola komunitateko kide guztiekiko.
- 4.4. Mahaian jarrera egokia eduki dezaten lortzea.
- 4.5. Giro lasaia lortzea, zaratarik eta garrasirik gabekoa, elkarriketa lasaiak izateko aukera ematen duena.
- 4.6. Lokalak, altzariak eta tresna komunak zaindu eta errespetatzea.

5. Aisiarako heztea

- 5.1. Aisialdia modu egokian erabiltzeko ohiturak sortzea eta hartarako estrategiak ematea.
- 5.2. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak planifikatzea, nortasunaren garapen egokia lagundu eta ohitura sozialak eta kulturalak sustatuko dituztenak.



JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

Arau orokorrak

1.- Eskolako jantokiaren zerbitzua urriko lehendabiziko eskola-egunean hasi eta maiatzeko azkeneko eskola-egunean bukatuko da.

Ikasturte hasieran hainbat estrategia programatuko dira bi eta hiru urteko ikasleak zentrorra egokitu daitezzen. Horrek eskatuko du zerbitzua aipatutako epe horren barruan antolatzea ikasle horien beharrei erantzuteari begira.

2.- Jantokiko gehienezko plaza kopurua 90 jankidekoa izango da, jantokian ez baitago ikasle gehiago sartzeko tokirik.

3.- Jantokiko gutxieneko plaza kopurua gutxienez 40 jankidekoa izatea gomendatzen da; izan ere, jankideen kopurua hori baino txikiagoa izanez gero, menuaren prezioa igo egin beharko litzateke, eta familientzat zaila izango litzateke haren kostua beren gain hartzea. Nolanahi ere, ez da aldeztatik gutxieneko plaza kopuru bat finkatuko, menuaren gehienezko prezioa ere finkatu ez delako.

4.- Hilaren 15rako kuota ordaintzen ez duen ikasleari ez zaio jantokian sartzen utziko harik eta ordaintzen duen arte. Nolanahi ere, ez zaizkio deskontatuko erabili ez dituen zerbitzuak.

5.- Ikasleren batek jantokiko kuota behin eta berriz ordaintzen ez badu, eskolako jantokiko zerbitzuan baja eman ahal izango zaio.

6.- Jantokiko Zerbitzuaren ordutegia ikastetxean egun dugun eskola-proiektuari egokituko zaio, hau da, bazkariaren aurretik edo ondoren egiten diren eskolako edo eskolaz kanpoko jardueren aurre-aurrean edo jarraian eman beharko da.

7.- Ikasleen segurtasuna dela-eta, ikastetxeko ateak itxita egongo dira ordu horietan.

8.- Behin jantokiko ordutegia bukatuta, aldeztatik adierazitako eskolako edo eskolaz kanpoko jarduerara eramango dira jankideak, edo, bestela, jantokiko arduradunek bilduko dituzte.

9.- Ikasleak ezin izango dira eskola-eremutik atera jantokiko orduan, salbu eta aparteko arrazoi batengatik bada; kasu horretan, jantokiko arduradun batek edo jankidearen senide batek lagunduko dio une oro ikasleari.

10.- Jantokitik ateratzeko ezarritako orduak jo baino lehen jankideren bat jaso nahi izanez gero, ezinbestekoa izango da arrazoa justifikatzea eta aldeztatik baimena eskatzea jantokiko arduradunari.

11.- Menua berdina izango da jankide guztientzat.



- Ikasleren bati elikagairen batek alergia eragiten badio edo ikasleren batek elikadura berezia behar duen gaixotasunen bat edo arazo somatikoren bat badu, hori egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du.
- Erljio-arrazoiak direla-eta elikagai jakin batzuk hartzen ez dituzten ikasleek eskabidean adierazi beharko dute menua behar bezala egokitzeko.

12.- Hil bakoitzaren hasieran eguneko menua entregatuko da. Informazio horrek seme-alaben dieta prestatzea erraztuko die familiei eta jantokian jan ez dituzten elikagaiekin osatu ahal izango dute dieta.

13.- Ikasle bakoitzak kremalleradun nezeserra eduki beharko du, hortzak garbitzeko beharrezko tresnak gordetzeko; horretaz gain, Haur-Hezkuntzako ikasleen kasuan, gomendagarria da jantokian bakarrik erabiliko duten arropa edo bata bat izatea, eta jantokiko arduradunak gordeko du.

14.- Ikasle guztiek jantokiko funtzionamendu- eta elkarbizitza-arauak errespetatu beharko dituzte: garbitasuna, sarrera zein irteerak, jarrera eta jateko ohiturak. Jantokiari lotutako gaien inguruko zalantzak argitzeko, monitoreekin jarri beharko da harremanetan eta beharrezkoa bada GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIArekin.

Jankide finkoa

1.- "Jankide finkotzat" hartuko da jantokiko zerbitzua modu jarraituan eta programatuan behar duen ikasle oro. Zerbitzua kontratatzean, jantokian asteko zein egunetan geratuko den adierazi beharko du.

2.- Hainbat modalitate eskainiko dira, jankideen beharrak kontuan hartuta. Hiru prezio finkatuko dira, jantokian bazkaltzen den egun kopuruaren arabera (asteen 2, 3 edo 4 egunetan). Hilean kopuru finko bat ordaindu beharko da horren arabera, 8 hilabetetan, eta menu bakoitzaren prezioa berdina izango da kasu guztietan.

3. Halaber, "Jankide finkotzat" hartuko da bere beharretara egokitzen den jantokiko zerbitzua eskatzen duen jankidea. Horretarako, hilabeteko egutegia aurkeztu beharko du, jantokian zein egunetan bazkalduko duen adieraziko duena. Hilabete bakoitzean gutxienez ere "Bazkide finkoari" dagokion bi eguneko menua aukeratu beharko du asteen, eta horren arabera kobratuko zaio.

Adibidez, familia batek interesa izan dezake bere haurra/k jantokian geratzeko aitak edo amak gaueko txanda duen asteen, asteko lau egunetan; goizez lan egiten duten asteen, berriaz, gerta daiteke haurra/k jantokian behin ere geratzea nahi ez izatea. Hilabetea hasi aurretik, egutegi bat aurkeztu beharko dute, haurra/k jantokian zein egunetan geratuko den/diren adieraziko duena; kasu horretan, "Jankide finkotzat" hartuko da/dira haien haurra/k.

4. Ikasleak "Jankide finkotzat" hartzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik eskaera egitea. Horretarako, 1. Eranskinetako inprimakia bete beharko dute, bertan honako datu hauek adierazita:

- Jankidearen izen-abizenak.



- Ikaslearen maila.
- Tutorearen izena.
- Bankuko datuak (kontu-zenbakia osorik eta kartillaren kopia bat).
- Jantokiko Zerbitzuaren ondoren eskolaz kanpoko zein jardueratara joango den.
- Zein pertsona dauden baimenduta jantokitik ateratzen denean jasotzeko.
- Harremanetarako telefono-zenbaki bat, larrialdi-kasuetarako.
- Jankidearen alergiak edo intolerantziak, edo berariazko dieta behar badu, zein.
- Hautatutako menuaren modalitatea (astean 2, 3 edo 4 egun).
- Egutegi bat, jantokira zein egunetan joango den adieraziko duena.

Agiri hau sinatzeak berekin ekarriko du Jantokiko Araudia onartzea.

5.- Hilabeteko kuota finkoa izango da eta hilabete bakoitzaren 10. egunetik aurrera deskontatuko da, eskabidean adierazitako kontu-zenbakitik.

6.- Banku-igorpena itzuliz gero, banku-gastuak osorik kobratuko dira.

7. “Jankide finkoak” edozein arrazoi dela-eta jantokian ez duela bazkalduko goizeko 09:00ak baino lehen jakinarazten badu, euro bat itzuliko zaio kontsumitu ez duen janaren truke. Hala ere, menuaren prezioa osatzeko falta den zatia kobratuko zaio, jantokiko langileek eragindako gastuak ordaintzeko.

8. Aldez aurretik abisatuta jantokira ez joateagatik ordainketak egin behar badira, hiru hilabetez behin egin beharko dira.

- urriari, azaroari eta abenduari dagozkien ordainketak, urtarrilean.
- urtarril, otsail eta martxokoak, maiatzean.
- apiril eta maiatzekoak, ekainean.

9.- Aldez aurretik abisatuta jantokira ez joateagatik edo itzulketa-gastuak egin behar direlako banku-igorpenaren zenbatekoa aldatu behar bada, familia bakoitzari gutun bat igorriko zaio, kuota aldatuko dela jakinarazteko. Horretarako, **4. Eranskineko** agiria erabiliko da.

10. **“Jankide finkoaren”** menuaren prezioa kalkulatzeko zerbitzuak urtean egiten dituen gastu guztiak batu beharko dira (BEZ barne), eta kopuru hori banatutako menu finkoen kopuruarekin zatitu beharko da. Ateratzen den zenbatekoari menuaren prezioa gehitu beharko zaio. Prezio hori kontratatutako enpresak ezartzen du:

- Jantokiko langileek (sukaldaria eta monitorea) eragindako gastuak batu beharko dira (BEZ barne).

2017-2018		
1 Monitora		
Coste Personal	18.673,60 €	año



- Urtean ematen diren menuak kalkulatzeko, astean 2, 3 edo 4 egunetan jantokian bazkaltzen duten jankideen kopurua batuko da.

Total (4d/sem.)	117	días / curso
Total (3d/sem.)	88	días / curso
Total (2d/sem.)	59	días / curso
Comensales 4 días	32	menús / día
Comensales 3 días	5	menús / día
Comensales 2 días	2	menús / día
Menús al curso	4302	menús

- Jankide bakoitzaren menuaren prezioa, beraz, honako hau da:
 $18.673,60/4.302 = 4,34\text{€}$ (langileak) + $1,36\text{€}$ (jana) = $5,70\text{€}$
- Menu finkoaren prezioa lortzeko, menuaren kostuari Gurasoen Elkarteak erabakitzen duen marjina aplikatuko zaio.
- Hilero kontutik deskontatuko den zenbatekoa ateratzeko, urtean kontratatutako egun kopurua menuaren prezioetik biderkatu beharko da, eta ateratzen den kopurua zerbitzua ematen den 8 hilabeteekin zatitu.

11.- Jantokiko Zerbitzuan **borondatezko baja** emateko, idazki bat bidali beharko da hilabetea bukatu baino astebete lehenago. Horretarako, 2. Eranskinetako inprimakia JANTOKIKO GURASOEN ELKARTEKO arduradunari eman beharko zaio. Hilabetearen erdian baja eman nahi izanez gero, euro bat itzuliko da hilabetea bukatzeko falta den egun bakoitzeko, kontsumitu ez diren jakiengatik.

Noizbehinkako jankidea

1.- **"Noizbehinkako jankidetzat"** hartuko dira jantokiko zerbitzua inoiz edo behin erabiltzen dutenak.

Gomendagarria da jantokiko arduradunari horren berri ahal den azkarren ematea, langileek euren lana antolatu dezaten eta, beharrezkoa bada, jaki gehiago eros ditzaten.

Zerbitzua emateko orduan, kontuan hartuko da toki nahikorik ba ote dagoen, monitoreak zerbitzua emateko moduan ote dauden eta jankideen beharrak asetzeko nahiko janari ote dagoen. Nolanahi ere, ezin izango da inolaz ere baimendutako edukiera gainditu.

2.- "Noizbehinkako menuaren" prezioa **"Jankide finkoaren" menuaren prezioa baino altuagoa izango da (% 20).**

3.- Ikasleak **"Noizbehinkako jankidetzat"** hartzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik eskatzea. Horretarako, 3. Eranskinetako inprimakia bete beharko dute, bertan honako datu hauek adierazita:

- Jankidearen izen-abizenak.
- Ikaslearen maila.
- Tutorearen izena.
- Jantokiko Zerbitzuaren ondoren eskolaz kanpoko zein jardueratara joango den.
- Zein pertsona dauden baimenduta jantokitik ateratzen denean jasotzeko.



- Harremanetarako telefono-zenbaki bat, larrialdi-kasuetarako.
- Jankidearen alergiak edo intolerantziak, edo berariazko dieta behar badu, zein.

Agiri hau sinatzeak berekin ekarriko du Jantokiko Araudia onartzea.

4.- Jantokiko zerbitzua eskatzean, **“Noizbehinkako jankideak”** aukera izango du noizbehinkako menuaren prezioa ordaintzeko, edo **“Familia Bonua”** erosita ordaintzeko.

5.- **“Familia-bonua”** hamar menu ditu, eta horien prezioa **“Jankide Finkoaren”** menua baino garestiagoa da (%10).

6.- **“Familia-bonua”** eskuratzeko GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIAN emango den inprimakia bete beharko da. Horretarako, honako pauso hauek egin behar dira:

- f) **“Noizbehinkako jankidea”** izateko eskabidea betetzea (**3. Eranskina**).
- g) JANTOKIKO GURASOEN ELKARTEAREN kontu-zenbakian bonuaren prezioa ordaindu. Kontzeptuan, **“Noizbehinkako jankidea”** izena jarri beharko da.
- h) Ordainketaren banku-ordainagiria GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIAN entregatu.
- i) **“Familia-bonua”** jaso, 10 menu-bono dituen.
- j) Jantokiko zerbitzuaren erreserba egiten den bakoitzean, menu-bonu bat entregatu beharko da. Kasu bakoitzean, jankidea eskolaz kanpoko zein jardueratara joango den edo jantokiko zerbitzua amaitzean jankidea jasoko duen pertsonaren izena adierazi beharko da.



JANTOKIKO ELKARBIZITZA-ARAUAK

Oro har, eskolako jantokiko jarduerak Elkarbizitza-Planean eta Zentroko Hezkuntza-Proiektuan jasotako Barne-Araudiaren bidez arautuko dira.

Arau zehatzak

Higienea

1. 3 urtetik gorako ikasleek euren kabuz jaten, komuna erabiltzen eta eskuak garbitzen ikasi beharko dute, monitoreek gainbegiratuta beti. Adin horretatik aurrera autonomiaz egin beharko dute.
2. Jantokian sartu aurretik, eskuak garbitu beharko dituzte komunean. Bazkaltzen ari diren bitartean ezin izango dira komunera joan, ondoezagatik denean izan ezik eta betiere monitoreen baimena dutela.
3. Ezin izango da inolako objekturik sartu jantokian. Karterak, liburuak, berokiak... dagokien lokalean edo tokian utzi beharko dira.
4. Ikasleek debekatua dute officean sartzea.
5. Arreta handia jarri beharko da mahai-tresnak eta ezpain-zapia behar bezala erabiltzeko.
6. Ezin da ez ogirik, ez urik ezta janari-hondakinik ere bota lurrera, ez eta gainerako ikasleei ere.
7. Bazkaldu ondoren, eta aisialdirako ezarritako tokietara joan aurretik, ikasle guztiek komunera joan behar dute hortzak garbitzera.

Antolamendua eta portaera

1. Ikastetxetik ateratzean, monitoreek Haur-Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehendabiziko zikloko ikasleak jasoko dituzte ikasgela bakoitzeko atean, eta jantokira eramango dituzte. Ondoren, komunera joango dira eskuak garbitzera eta jarraian, jantokira. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6.era arteko ikasleak erdibideko toki batera joango dira, eta handik, lagunduta, jantokira.
2. Jantokian sartzeko, ikasleak taldeka jarriko dira eta ilara bat osatuko dute, ordenan eta lasaitasunez, korrika egin gabe, ikaskideak bultzatu gabe eta garraxirik egin gabe.
3. Gutxi gorabeherako adinari erreparatuta ikasle bakoitzari eserleku bat esleituko zaio, eta bertan eseri beharko du ezinbestean. Toki horiek finkoak izango dira, baina monitoreek aldatzeko aukera izango dute.
4. Materiala eta tresnak errespetatu beharko dira, eta ikasleen erantzukizunekoak izango dira haiek jasan ditzaketan kalteak, betiere erabilera okerrak eragindakoak badira.
5. Une oro behar bezala eserita egon beharko dute eta ezin izango dira aulkietan kulunkatu, ez euren tokitik mugitu, ezta aulkitik altxatu ere. Ezin izango dira aulkitik altxatu. Monitoreei deitzeko, eskua jaso beharko dute.
6. Oso garrantzitsua da giro lasaian bazkaltzea; horregatik, ez diete ikaskideei garrasika hitz egingo, ahots-tonu egokian baizik.
7. Egokitzen jotzen bada, eta betiere hezkuntza-arrazoiek bultzatuta, ikasleek jantokiko zerbitzuan lagunduko dute, euren gaitasunen arabera.
8. Ikasleak mahaian eseri eta zerbitzatu arte itxarongo dute. Eta bazkaldutakoan, hondarrak bota beharko dituzte, ahal den zarata txikiena eginez eta zikindu gabe.



9. Ikasleek debekatua dute:

- Tokiz edo taldez aldatzea, monitoreen baimena izan gabe.
- Janlekutik altxatzea justifikatutako arrazoirik gabe.
- Jantokitik ateratzea monitoreen baimenik gabe.
- Officean sartzea monitoreen baimenik gabe.
- Jantokiko materiala nahita edo erabilera okerraren ondorioz hondatzea.
- Jana lurrera edo gainerako ikaskideei nahita botatzea.
- Zerbitzatutako guztia jan gabe utzi eta baimenik gabe botatzea.

10. Ikasleek zentroko irakasleei zor dioten adinako errespetua zor diote monitoreei: haiek agindutakoa bete beharko dute.

11. Behin jantokiko zerbitzua amaituta, monitoreek eta ikasleek jantokian itxarongo dute unean uneko eskolako edo eskolaz kanpoko jardueretako irakasleek euren ikasleen bila agertzen diren arte.

12. Gainerako ikasleak monitoreek lagunduta itxarongo dute, aldez aurretik esandako senideak edo arduradunak biltzen dituen arte.

Elikadura

Prestatutako menura moldatu beharko dute ikasleek, eta zerbitzatzen zaien kantitatea jan beharko dute, gutxienez ere menuko lehen eta bigarren plateren erdia.

Aisialdia

5. Talde bakoitzak esleitu zaion tokian egon beharko du eta programatutako jarduera egin, betiere monitoreek gainbegiratuta. Ikasleak ezin izango dira taldetik aldentu baimenik gabe.
6. Ezin da joko arriskutsuetan aritu. Joko arriskutsutzat jotzen dira pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketenak.
7. Monitoreek gainbegiratuta, jantokiko taldekoak txandaka arituko dira pilotalekuan, portxean eta ikastetxeko patio txikian.
8. Egun euritsuetan monitoreak lagunduta egongo dira, handiak eta ertainak portxean/pabiloian, eta txikiak, jantokian.



HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Hutsegite arinak

Hutsegite arintzat honako hauek hartuko dira:

10. Sukaldeko eta jantokiko langileek agindutakoa neurri txiki batean ez betetzea.
11. Eskuak edo hortzak ez garbitzea.
12. Zabar aritzea jantokiko sartu-irteeretan.
13. Jantokian baimenduta ez dauden objektuekin sartzeara (jostailuak, liburuak...).
14. Tokiz aldatzea (mahai berean).
15. Zuzentasunez ez jatea eta mahai-tresnak behar bezala ez erabiltzea: mahai-tresnak, erretiluak, platerak, mahai-zapiak, etab.
16. Gaizki esertzea eta aulkian kulunkan ibiltzea.
17. Zarata edo garrasi egitea eta beste mahaietako ikasleekin hitz egitea.
18. Gainerako pertsonen zori zaien errespetuan, edo haien osotasunean edo osasunean eragin arina duen beste edozein jokoera.

Hutsegite arinak idatziz jakinaraziko zaizkio GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari, astean behin. Horretarako, **5. Eranskin**eko inprimakia erabili beharko da.

Zehapen arinak:

5. Ikasleei ahoz ohartaraztea. Jarrera desegokia errepikatuz gero, tutoreei telefonoz eta/edo idatziz jakinaraztea.
6. Erreferentzia-taldetik urruntzea aldi baterako (edo bere jantokiko mahaitik) eta beste batean sartzeara.
7. Egun horretan, aisialdiko jokoetan edo jardueretan parte hartzeko eskubidea galtzea.
8. Egindako hutsunearekin erlazionaturiko lanak eginaraztea.

Zehapenak bai jantokiko monitoreek, bai GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunak ezarri ahal izango dituzte.

Hutsegite larriak

Hutsegite larritzat honako hauek hartuko dira:

4. Hiru hutsegite arin metatzea.
5. Sukaldeko eta jantokiko langileek agindutakoa ez betetzea.
6. Gainerako pertsonen zori zaien errespetuan, edo haien osotasunean edo osasunean eragin larria duen beste edozein jokoera.

Hutsegite larriak idatziz jakinaraziko zaizkio GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari, gehienez ere 24 orduko epean. Horretarako, **5. Eranskin**eko inprimakia erabili beharko da.



Zehapen larriak

Hutsegite arinetarako aurreikusitako edozein. Eta gainera:

5. Ikasleei ahoz ohartaraztea. Euren tutoreei jakinaraztea.
6. Erreferentzia-taldetik edo bere jantokiko mahaitik betiko bereiztea.
7. Ikaskideengandik aparte bazkaltzea (gehienez 5 egunez).
8. Jantokitik aldi baterako kanporatzea (gehienez 5 egun).

Zehapenak GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunak ezarri ahalko ditu, eta tutoreei jakinaraziko zaizkie.

Hutsegite larriak

Hutsegite larriak dira:

- Hiru hutsegite larri metatzea.
- Zentrotik baimenik gabe ateratzea jantokiko ordutegian.
- Monitoreen aginduak behin eta berriz desobeditzea.
- Gainerako pertsonen zor zaien errespetuan, edo haien osotasunean edo osasunean eragin oso larria duen beste edozein jokaera.

Hutsegite oso larriak idatziz jakinaraziko zaizkio GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari, gehienez ere 24 orduko epean. Horretarako, **5. Eranskineko** inprimakia erabili beharko da. Nolanahi ere, guztiz gomendagarria da horren berri telefonoz ematea, ahal den azkarren.

Zehapen oso larriak.

Hutsegite larrietarako aurreikusitako edozein, eta gainera:

3. Jantokitik aldi baterako kanporatzea (5 egunez gutxienez eta hilabetez gehienez).
4. Jantokitik betiko kanporatzea.

Zehapen horiek Jantokiko Batzordeak ezarri ahal izango ditu:

- Ikastetxeko zuzendaria.
- Gurasoen elkarteko lehendakaria.
- Gurasoen elkarteko bi ordezkariak, jantokiko egunerokoa kudeatuko dutenak. Pertsona horiek GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIA taldekide iraunkorrak izango dira.

Nahitaezkoa izango da tutoreak eta jantokiko arduradunak bertan parte hartzea.



MONITOREEN EGINKIZUNAK

Jantokiko ikasleen hezkuntza-arreta, laguntza eta zaintza monitoreen ardura izango da. Monitoreek tonu egokia erabiliko dute beti ikasleekin eta honako eginkizun hauek beteko dituzte:

- Ikasleak artatu eta zaintzea jantokian nahiz patioan, komunetan, geletan eta erabiltzeko prestatutako beste eremu batzuetan, klastetik irteten direnetik arratsaldean sartzen diren arte (jantokiko ordutegia).
- Sarrera-irteerak kontrolatzea jantokitik jakirik atera ez dezaten.
- Mahaian egoki portatu eta behar bezala jaten dutela zaintzea.
- Aholkularitza- eta hezkuntza-lanak egitea, jankideek ohitura osasungarriak har ditzaten honako arlo hauetan: elikaduran, higienan eta gizarte-harremanetan. Era berean, jaten dutena egokia dela zaindu beharko dute.
- Kontrolerako parte bat betetzea. Bertan egunero zerbitzatutako menuak jaso beharko dira (finkoak, noizbehinkakoak eta bonuak), baita aldez aurretik abisatutako hutsegiteak ere, eta hilaren bukaeran GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari eman beharko dizkiote, fakturatutako zerbitzuekin egiaztatu ditzaten.
- Hutsegiteak eta zehapenak izeneko dokumentua betetzea eta horren kopia bat GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari ematea, aldez aurretik ezarritako epeetan.
- Osasun-arazoren bat duten ikasleak artatzea eta osasun-zentrora eramatea, gaixoaren/zaurituaren familiari gertatutakoaren berri ematea eta GURASOEN ELKARTEA-JANTOKIKO arduradunari jakinaraztea. Bitartean, gainerako monitoreek beren taldeko ikasleak zainduko dituzte.



FAMILIENTZAKO ARAUAK

Hezteko lana: Maria Moliner-ren hiztegiaren arabera, hezteko lanak, hau da, “Haurren adimena eta izaera prestatzeak gizartean bizi daitezen”, “Kortesiako arauak norbaiti irakasteak”, “Hainbat praktika edo ohitura onak irakasteak”, haurraren hezkuntzan parte hartzen duten agenteen laguntza eta sintonia eskatzen du: Familia, eskola eta gizartea. Horretarako, jantokiko ikasleen familien inplikazioa ezinbestekoa da ikasleek hezkuntza-balioak barneratu ditzaten.

Hori dela eta, familia horiek honako arau hauek bete beharko dituzte:

- Araudi honetako atal guztietan ezarritakoa bere egitea.
- Seme-alabei mahaian nola jokatu behar duten jakinaraztea.
- Kuota egunean izatea. Horrelakorik egin ezean, familiak ezin izango du jantokiko zerbitzua erabili harik eta jantokiko zorra ordaindu arte (familiaren zorra ez da iraungitzen).



1. ERANSKINA





2. ERANSKINA





3. ERANSKINA





4. ERANSKINA





5. ERANSKINA